

BERROGEI LAPURREN BERRIKETA

ttanttari ttu ttonttorrean

Kandelak kexu dira erraiak erretzen dizkiegunean,
negar egiten dute ttonttorrean behera,
ttanttaka-ttanttaka,
ttantto erregarriak laino ttipietan josiz.
Kattalinek ttu egiten die katu kuttuna magalean duela,
ttunttulunka.

Ilunpean bizitzera ohitu dira,
ohartu gabe,
ilunik ez dutela itzaltzen ilberri den gau zurietan.
Suzko errotak beso bakarra izaten du, baina, eskurik ez.
Kandela bat dago Kattalinen sukaldean,
bost esku dittu
gaur ilbetea duelako gauak marrazki.

Kattalin sorgin ttunttuna da,
sudurraren puntta erretzen baitzaio
arnasa guttituz putz egiten duenean,
ttunttulunka,
pottoka pottoloari pattarra pittinka ematen dionean.
Ttanttari ttu ttonttorrean.

xaguak xoxoari xuxurlatzen dionean

Xuloan sartu da xagua,
pinporta xuririk gabeko gaztaren xerkan.
Arraioa! Atzo gauean bere sudurrari goxo zitzaiena
gaixo zaio goizean begien axalari.
Xutik xist egin die hanka txikiek
eta exeri egin da irrixt egiteko beldurrez.
Xarmarik ez du begirada ximurtua duen xaguak,
xaxatu arren, irribarre egiteko esan,
xirikatu,
malkoak nahi gabe laxatzen zaizkio
muxu argirik gabeetan behera;
xxxxxx, ixilik nahi du ingurua,
triste dago,
pinporta xuririk gabeko gaztarik ez baitu aurkitu
xuloan ixilka sartu den xagu xaharrak.

Xxxxxx, ez ezazu negarrik egin,
Esan dio xume xoxo beltz xaloak.
Hego xuxen goxoekin lehortu dio,
xukatu,
begi bustien
udazkeneko xirimiria.
Xxxxxx, negarrik ez egiteko,
poesia eder bat xuxurlatu dio belarrira,
xoxoak xaguari,
aspaldiko garaietan Kaxiano izeneko gixonari entzuna.
Xirula mokoan kaxka! Negarrik ez egiteko.
To, puxika polit hau zuretzat
Pinporta xuridun gaztaren itxurakoa.

Xeratsu azaldu zaio xagua xoxoari,
xarmangarria zara.
Xuluftrin bat xuxurlatu dio ezpainetik ezpainera.
Arroxa kolorekoa.
Eta ez du negarrik egin. Gehiago.

lañoetan ñirñirka izar ñimiño bat

Mixiña-mixiña,
teilatuan katua gaueko lañoiei, ñauka.
Izar ñimiño bat topatu du,
ñirñirka,
argizko soñeko batean dizdizari fiña.

- Ene izar atsegiña, kontaidazu atzo iluntzeko ipuña.
- Berdiñ-berdiña?
- Bai, haiñ izan zen...
- “Bazen behiñ ñiki-ñaka bizi zen neskato ñuku bat...”.
- Ez, hori ez, hori baño lehenago kontatutakoa.
- “Bazen behiñ printze urdiñarekin maitemindu zen sorgiñ bat...”
- Ez, hori ere ez!
- “Aspaldi panpiña ñarroak bizi ziren garaietan...”

Katua joan egiñ da lañopean sardiñen usañean,
ez zen hori entzun nahi zuen ipuña.
Eta gose da.
Amoña atsegiñagoa da eta gaztañaren bat ere erreko dit
danboliña eragiñez.
Antziñako ipuñen batekiñ egingo dugu jolas.

Izarra lañopean ñarroto da,
jadanik ez du ñirñir egiten,
jadanik ez dio ipuñik kontatuko teiltatura ñauka igotzen den katuari,
jadanik ez du printze urdiñengan siñestuko,
jadanik miña da bihotza laztandu dion osiña.
Bakarrik gelditu da,
lañoetan ñirñirka izar ñimiño bat.

zorrak zor, sagarrak sagar

Harrak zordun dira sagar erreek labea zurrupatzen dutenean,
larri ibiltzen dira arnasa hartzeko ere.
Harri gorri lehortuetan ezkututzen dira
horrelakoetan,
zurrut egiten dute horditu artean,
mozkortu,
eta mozkorra! oihu egiten diote elkarri.

Sagarrak ez dira harren gordeleku bakarrik,
urre zaharra da aurki dezaketen altxor bakarra.
Eta hortik zorrak.

Arrasto gogorak uzten ditu zomorroen arteko borrokak,
idortu gabeko garrasien oihartzun lakarra.
Beharrak uztarran lotutako haserreak,
arratoi arreen trazako,
arrisku harroen arrimura errotoak.
Berrogei lapurren berriketa.
Antzerkia hasi da pertsonaia berrien marrazkiekin.
Sagarretako harren zorra.

EZIZENA: TTAKUNA